

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Udazkenik gabeko udaberria



Amaia Serrano Mariezkurrena



Udaberririk ankerrena

UNAI ITURRIAGA

Ilustratzailea: Alex Sanvi
Elkar, 2011

Durangoko Azoka iragana den honetan, Durangori begiratzeko beste modu bat eskaintzen digu *Udaberririk ankerrena* (2011) komikiak. Bi-biek kultur mailatik egiten diote ekarpena (euskal) herriari, baina bigarrenak haren historia iluna dakar argitara.

Gernikaren bonbardaketak hainbat adierazpen artistikoren bidez hartu dituen esanahi lokal zein globalen ostean, suntsituak izan ziren gainerako herri euskaldunek bere espazioa galdegiten dute. Zentzu horretan, obra honek "komiki historiko" izateko ezauzgarriak betetzen ditu: istorioa bera eratu aurretiko dokumentazio-lan baten emaitza izatea (fikzioa gailentzen den arren), irakurlea testuinguru egokian kokatzeko *Durango 1936* Kultur Elkartek egindako aitzinsolas historikoa, oinarri faktikoa duten gertaeren/pertsonaien agerpena, lekukotza bat emateko nahia, genero literarioen eta diziplinen arteko mugak apurtzea, eta abar. Horrez gain, halako lanetan saihestea zaila izaten den manikeismotik urruntzeko ahalegina ere ikusten da, eta eginkizun horretan agertzen zaizkigu emakumezkoak: ez soilik narratzailea den Mari, zeinak narrazioa lehen pertsonatik kontatzen digun, baita izeko Dolores

ere, zeinaren onberatasunak etxean faxisten aldeko apaiz bat ezkutatzera daraman.

Historia ezaguna da, alde horretatik badakigu zer espero dezakegun eta, egia zor, iragan

hurbila ezagutzen duenari bilbea bakunegi gerta dakioko. Dena den, badira sorpresak ere, kontrasteak eta bidaia (literalak zein metaforikoak), kontaketa aberasten dutenak. Irakurleak *Udaberririk ankerrena* komikian aurkituko du musika alai gerra betean, zahartzarua eta haurtzarua elkarren eskutik, gorrotoa eta maitasuna elkarri begira, zentzugabekeria eta arrazionaltasuna bata besteari tiraka. Paradoxek, gainera, elkartu egiten dituzte historiako ibilbide ezberdinak: aitona Eleuteriok Kubako Independentzia Gerran espainiar armada kolonialean parte hartu zuen (haren lotsagarri), eta Martin bilobak Habana itsasontzia izango du bizirau-penerako ihesbide.

Gerraren eromena ere presente da, nagusiki Don Fernandorengan pertsonifikaturik. Orobat ageri da kaosa, noiz eta aitona errepublikazalea, erreketengandik ihesi doala, Intxortako gudari batek hiltzen duen. Heriotza horrek egoeraren gordintasuna eta krudeltasuna areagotzen ditu.

Testuaren eta irudien arteko harmonia handia da. Horrek ez du eragozten, edonola ere, une batzuetan bata ala bestea gailentzea, bilatzen den erantzunaren arabera. Mutua da bonbardaketaren unea bera, baina irakurleari iltzaturik geratzen zaizkio hegazkinen eta bonben durundia. Aldiz, bada jolas narratiborik ere, Mari eta aitona elkar aurkitzen dutenean askatzen dena, esaterako.

Horrenbestez, gure historiaren zati batera gerturatzeko proposamen interesgarria da komiki hau, batez ere (formatuari eta istorioari begira) belausaldi berrientzat. ■



Unai Iturriaga (*Durango, 1974*) bertsolaria, idazlea eta ilustratzailea.